


Ekiñe Irizar Aranburu

Emaila • Aipamena



Kaixo! Ni Ekiñe Irizar naiz, eta, biografia simple bat egitea erabaki dut gaurkoan.

11 urte ziztrin ditut, eta Alkartasuna Lizeoan ikasten dut. 2007ko apirilaren 4an jaio nintzen, eta horrelaxe esaten dut, munduko egunik normalena izango balitz bezala.

Nire izaera deskribatzeko gaztelerazko esaldi bat erabiliko dut:

“No soy borde, soy de simpatía selectiva”

Zaletasunez zer esan dezakedan, ba, marraztea, idaztea, irakurtzea, abestea, dantzatzea eta gimnasia erritmikoa egitea dira.

Lehenago ere irabazi nuen Ttiklik erakundeak antolatutako GURASOEI GUTUNA lehiaketa, eta bai honek eta bai hark, idazten segitzeko animoak eman dizkit.

ISILTASUNEAN ZARATA

Hemen nago, ezin dut galerazi besteak nitaz barrezka aritzea, edozer deitzen didatelarik, baina, bai, galerazi dezaket berdintasun mugagabe hura. Nola? Asmatu! Gatazkaren bat konpontzen, jakina, ez besteetaz barre egiten, baina nola atera naiteke isiltasunean zarata dagoen mundu zuri-beltz honetatik? Saiatzen, bai! Ezinezko modurik gabeko mundu hartara joateko ahaleginak eta bi egin ditzakedan mundura, mundu koloretsura.

Orain, begiak isteko garaia heldu da, luzaroan amets egiteko garaia. Begiak itsi, eta, ezin dut sinetsi aurkitu dudana, eta atximur egin diot neure buruari, baina, ez nago ametsetan. Badakit zer mundutan nagoen, mundu koloretsuan. Han, ez du inork nire kontura barrerik egiten, eta denek neure izenez deitzen didate.

Hemen, dena desberdina da, ez dut ikusten ezer zuri-beltzik, ez arrarorik; dena koloretsua da, izugarri gustatzen zait mundu hau, paisaia, jendearen portaera aldaketak, hau da, lehengo jende maltzur eta burumakurra, bizitzan gauzek duten alde onari begiratzen ez diena, gauzak beste ikuspegi batetik erreparatzen ez dituen, irudimenik ez duena, mundu hau ere zuri-beltza ikusten duena, aldatu da mundu honetan.

Denak ortzadarra bezain koloretsuak dira, eta zerua koloreztatzen dugu, isiltasunean zarata duen mundu zuri-beltzari kolorea ematen diogu, itsasoa margotzen dugu...

Baina, mundu zuri-beltz hura, isiltasunean zarata duena, existituko ez balitz, ez nintzateke hemen egongo, eta ez nien gauzei beste ikuspegi batetik erreparatuko, ez nuen ortzadar

koloretsua egingo, ez nion mundu zuri-beltz hari kolorea emango... hau da, mundu hau etzen egongo, eta, orduan, akabo! Akabo alaitasuna, akabo poza... isiltasunean zarata duen mundu hura, faltan botatzen dut.

Azkenean, begiak ireki ditut, loaldi luzaro honen ostean, eta, isiltasunean zarata duen mundu hura daukat berriro ere nire begien aurrean, baina, iadanik ez dut zuri-beltza ikusten, ez jende gaiztorik, ez. Nire ametsean koloreztatu dudak bezala geratu da mundua. Ez da amets bat izan, baina orain palanka bat dago: noiz behinka palankari ematen diot, isiltasunean zarata dagoen mundura bidaiatzeko, eta berriz ematen diot, itzultzeko.

Gauza bat ikasi dut orain: gauzen alde onari begiratzen ikasi dut.